

dogu, Cristinaubac, pecatu eguiten, conde-
 nau ez gaitezan pecatubagaz. Baña pecatu eguin
 arren, biurtu biar dogu Jaungoicuagana, pe-
 catubaren parcacinoia jadisteco esperantza osua-
 gaz. Sinistu biar dogu, Jaungoicuac parcatuco
 deutzuzala gueure pecatu guztia, damu eguii-
 jazcuagaz, ta esperantza osuagaz escatuten ba-
 deutzagu. Au esperantza sendua, pirmia, ta
 errazuazcua da. Baña pecatuban vitzi, peccatu
 eguin ardura bagaric, pecatuti urteteco, ezer
 eguin ez, ta Cerura juango nas, pensau, al-
 carri ez dautsa, utseguitia da, engainuba da,
 Jaungoicua tenteetia da. ¡Oh! ¿Ceimbat oneta-
 rico Cristinau? Pecatu mortalian urte ascotan
 pena bagaric vitzi dira, tratu gaistuai, ecan-
 du impamiai, ta adisquide pecatuzcuai ichi
 gura ez deutsee, ta esperantza paltso bategaz
 esaten davee: *Jaungoicuac Salbauco gaitu*. Jaun-
 goicua ona da. Baña ona dalaco, ez dau inoc
 opendidu biar. Escatu daijogun bada Jaungoi-
 co guztiz onari Jesusen merecimentubac gaiti,
 pede vitziya, esperantza oso bat, ta caridade
 sutsubat, vitzi garian arteco, ta Ceruco glo-
 rija betico. Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu
 Santubaren izenian. Amen.

III. ICASIQUIZUNA,

Ceñetan eracusten dan : *¿ Celan dan Jaungoicua guztiz maite garrija ? Ta ¿ Cegaiti ?*

Esanda gueratu da, neure entzula onac, leengo dotrinan, leengo mandamentubac celan aguinduten deutsen cristinau guztioi, Jaungoicua ameeetaco, beste gauza guztia baina gueijago. Ta baita pedia, ta esperantzia biar diriana bere, mandamentu onen aguinduba eguiteco. Ta esango deutsut dotrina onetan, *¿ Cegaiti amau biar dogun Jaungoicua, gauza guztia baina gueijago ?*

Cristinau guztia daqujee, leengo mandamentubac aguinduten davena, Jaungoicua ameeetaco, beste gauza guztia baina gueijago. Guztia daqujee, Jaungoicua amau bagaric, Ceruric ez daguana. Baina ezditubee guztia eze, guichiagoc bere ezaututen, ta penseetan, Jaungoicua ameeetaco, daucaguzan errazoe andijac, eta arguijac. Ta au gaiti dagoz cristinau guichi, Jaungoicua bene benetan ameeetan daveenac. Gauza sicu bat, otz bat, derrigorrezco bat, edo nora ezeco bat, balitz leguez, beguiratuten deusee, ascoc Jaungoicua ameeetari. Noberaren gogocua bada persona bat, á pozic, eta gustoz ameeetanda. Baina, noberaren gogocua ez bada, ez jaco casu andiric eguiten. Guei-

jeenaz bere gachic ez opa izatia, da, nobera-
ren gogoco ez dan personiarentzat, daguan
amodijo guztia. Inori gachic ez gura izatia,
ta ameeia, gauza bi dira. Ez da asco, Jaun-
goicua ameeitaco, Jaungoicuari gachic ez opa
izatia; ez bada, onezaz ostian, ondo gura
izan biar jaco Jaungoicuari, amau biarda, ala-
bau biarda, ta maite izan biarda, beste gau-
za guztia baino gueijago. Bada Cristina guz-
tiac pocic, gustoz, ta errazto, berecaturan
leguez, ezer bere costa bagaric, ta pena ba-
garic amau daguijeen gueure Jaungoico guztiz
ona, iminico ditut errazoe batzuc, edocei-
nec aitu leguizana, ta Jaungoicua ameeitara
ecarten gaitubeenac. ¹⁰⁶ Alcarri oratuta leguez,
egongo dira mandamentu onetaco dotrinaac, ta
ez aaztu bategaz bere, guztia entzun artian.

¹⁰⁷ Ezdago inor bere, neure cristinaubac, ain-
zororic, ain itsuric, edo ain necijoric, cein-
da, gauza bat, guztiz ona dana, jaquin ez-
quero, ameeitan ez davenic. Ta ceimbat dan
onagua, gogocuagua, ta palta guichiago dau-
cazana, gauza á, ainbat izatenda gauza arent-
zat amodijua, ta carinua andijagua. Ta bada
esquina guztietati ona, chito guztizcua, ta
bat bere tacha bagacua, orduban arentzaço amo-
dijua, carinua, ta maitetasuna bere osua, guz-
tizcua, ta neurri bagacua da.

Pensau eguizuz bada, cristinaubac, cen-
bei gurarija emoten deutsubeen gauza on guz-
tijac, ceubec naidituzun, edo onae diriala, de-
richazun condecinoe, ta maitegarri guztia.
Pen-

Icasiquizunac

41

Ponsau eguizuz , icusteco , esateco , entzuteco
euquiteco , edo gozeetaco , goguan jausten jat-
zuzan ontasun guztia. Ta dirianac topauco
dituzu Jaungoicuagan. Dirianac daucaz Jaun-
goicuac berez. Ta daucaz , bera ameeetan da-
veneentzat. Adisquide oso baten condecinoe
guztia daucaz Jaungoicuac. Bera da *Jaquitu-
na* , bera da *Zuzena* , bera da *Aberatsa* , bera
da *Lauba* , bera da *Andija* , bera da *Sendua* ,
bera da *Pirmia* , bera da *Emonzailia* , bera da
Parcazallia , bera da *Gracijasua* , bera da
Carinosua , bera da guztien *Eracua* , ta bera
da *Beticua*. Derichat , neure cristinaubac , on
modu , edo condecinoe oneec guztioe dauca-
zan persona bat , topauco bacendu , naico cen-
duquiala , aren adisquide izatia. Ta amauco zen-
duquiala guztioe gustoz , pozic , carinoz , ta
vorondate osuagaz persona á. Bada artu egui-
zu paciencia Jaungoicuaren amodijua gaiti , ta
icutsico dozu arguiro , guztia , eta gueijago
daucazala Jaungoicuac ceubeentzat , eta niret-
zat , gueuc bera amau ezquero. Entzun eguizu.

I. *Jaquituna* da Jaungoicua , ta amau biar
dogu jaquituna dalaco. Jaquituriya da , neure
entzula onac , munduban chito asco estimeetan
dan gaucia. ¿ Ceinbatec eureen burubac cau-
seetan ditubee , ta aciendac casteetan ditubee ,
cerbait gueijago jaquitia gaiti? ¿ Ceinbatec egu-
nazco icasijari guichi erichita , gavac galduten
ditubee , liburubac iracurten , izarrac conteetan ,
vedarrac esamineetan , ichasuac neurtuten , ale-
manijac zaintuten , luurac aztertuten , cidarrac ,

eta metalac topeetan , ta piseetan? ;Ceinbatec osasuna , ta juicijua galdu dirubee , irago dan sei , edo zazpi milla urtian baquian , ta guerraan , osasunian , ta gaixuan , Ceruban , ta impernuban , ichasuan , ta luurrian , cer jazodan , ta jazoten dan , jaquiten? Guraso baten contentu , ta poz guztia da , seme , edo alava jaquitun bat euquitia. Castau daven guztia ez deutsa bapere minic emoten , seme alavaac cerbait gueijago icasten daveenian. Erri baten badago jaquitun andi bat , guztiaac estimeetan davee , ta campuetan bere conteetan davee , ce jaquitun andija daguan eureen errijan. Guztiaac nai leuquee , aren adisquide izatia. Urrineti eseribidutaco carta bat baño , ez bada bere , aren gaucia euquitia nai leuquee. Beragaz verba eguitia , edo cerbait bere aoti entzutia estimeetan davee. Illda guero bere , ez dira aaztuten , ez senidiac , ez adisquidiac , ez da ez ezagunac bere alaco jaquitunagaz. Ta esaten davee : ¡Ah, ce jaquituna zan! ¡Neure senidia zan, neure adisquidia zan! ¡Cegaiti bada au guztiau, neure entzula onac? Jaquituriija , ta jaquituna guztiaac estimeetan daveelaco , ameeetan daveelaco , ta chito asco nai daveelaco.

Bada , cristinaubac , munduco jaquituriija guztia Jaungoicuaren aurrera jaso ezquero , zorqueriija , ta ezjaquite utsa baiño ez da. Jaungoicua da jaquituriija bacarra. Bera da jaquitun gustien jaquituna , ta jaquituriija guztiaren eracusla bacarra. Icasten ibili bagaric , daqui Jaungoicuac , ceruban , impernuban , ichasuan , ta lu-

luurrian jazoten dan guztia. Cansau bagaric conteetan ditu Jaungoicuac. Ceruban dagozan Ainguerubac, eta Santubac, impernuban dagozan condenaubac, limbuan dagozan arimaac, ichasuan dagozan arrainac, eta ondarrac, lurrian dagozan bedarrac, munduban jaijo dirian, ta jaijoco dirian persona guztia. Mundubaren asierati ona guizon, eta emacume guztia, cer esan daveen, cer eguin daveen, cer pensau daveen, ta cer esan, eguin, ta pensauco daveen, guztia daqui Jaungoicuac. Urrinecua daqui, urrecua leguez; ainchinacua, oraingua leguez; ta etorquizuna, iragotacua leguez. Ez destajuban, erichijan, dudaan, edo guzurrez naastautā, munduco jaquitunac leguez; ez bada zuzen, artz, arguiro, ta ziatz, nos, nun, celan, ceimbat, cegaiti, ta zetaraguino dirian, guztia daqui Jaungoicuac. Munduban inoc ezer badaqui, Jaungoicuac eracutsitaco pusca bat baño ezdaqui. Ta daquijana bere, (pediaz osterantzecua) utseguitez naastauta baino, ez daqui. Jaungoicua da jaquitun bacarra, edo Jaquiturijsa utsa. Bada, cristinaubac, mundueo persona bat ainbeste ameeetan bada, ta estimeetan bada, jaquituna dalaco, ta ainbeste desietan bada aren adisquide izatia; Ceinbat gueijago amau biar dogu, ta estimau biardogu gueure Jaungoicua, jaquitun guztien Jaquiturijsa dalaco? Ta ceinbat gueijago desiau biar dogu, Jaungoicuaren adisquide izatia, gauza guztia, berac daquizalaco, ta daquigun pusquiā, berac eracutsita baño, ez daquigulaco?

Or-

Ordu lauren baten, edo istante baten gueijago eracusten deutsa Jaungoicuac arimiari, munduco liburu, ta maisu guztia bere dempora guztian eracutsi leguijuen baino. Pensau egizu bada, cristinaubac; aya Jaungoicuac merceduten daven, gueuc beste gauza guztia baino, gueijago ameeia, Jaquitun guztizcua, ta amai bagacua dalaco. ¡Oh, neure Jaungoico ona! Ameeian zaitut, viotz guztiagaz, zeu guztiz Jaquituha zarialaco. Nire pocic andijena da, Jauna, ceu ezaututia, ceuri entzutia, zeugaz verba eguitia, ta beti ceure adisquide izatia, Jaquitun bacarra zarialaco. Baita, Jauna, zucena zarialaco bere.

II. *Zucena* dalaco bere amau biardogu, cristinaubac, gueure Jaungoico ona, beste gauza guztia baino, gueijago. Zucentasuna da, munduban chito asco nai dan gaucia. Verbeetan, tratuban, ta artu emonian, zucena dan cristinauba, guztia estimeetan davee, ta ameeian davee. Ta guztia ondo gura deusee alaco zucenari. Beste aldeti, paltsaquerijac, engainubac, naastiac, ta arpeguiera bi lagun artian darabiltzan cristinauba, ez dau inoc icusi gura. Ta ezda agaz traturic, edo artu emonic euqui bere, paltsua dalaco. Zucenari, ciurrari, ta zintzuari beguiratuten deutsagu beti carinoz, ta amodijoz. Ta beragaz naidogu contuba, ta adisquidetasuna euquitia; ¡Oh! Zucenac beragaz darua gueure bijotzeco amodijo guztia. ¡Cer dala derichazu bada, cristinaubac, munduco zucentasun guztia, Jaungoicuagana jaso

ezquero? Ez beste gauzari, ez bada engainuba,
ta paltsaquerija. Gueure Jaungoico ona da bacar-
ric, ta berez zuzena, arteza, ciurra, ta egui-
jazcua. Guizon guztia, dino David Erre-
guiac (1), dira guztitjac, edo guzurra esan
leguijeenac. Jaungoicua da bacarric zuzena, ta
arteza bere juicijuan (2). Ez dago inor bere
lurraren gainian ain zucenico, ceinda egunian
egunian ascotan uts eguiten ez davenic. Jaun-
goico ona da bacarric, uts eguiteric ez dauca-
na; Celan ezautu guinai bada Jaungoicuaren
zuzentasun neurri bagacua? Gomutara ecarri-
jagaz, cer eguiten daveen guengaz. Bago inor
Jaungoicuaren contra quexau leitequianic? Ez.
Mundura etorri dirian guizon, ta emacume
guztiaquin, Ceruban dagozan Aingueru guz-
tiaquin, ta condenauta impernuban dagozan
guztiaquin, contubac eguin ditu, ta eguingo
ditu Jaungoicuac. Baina ezdago guztien artian
bat, ta ezda izango bere, Jaungoicuac engai-
nau davenic. Verba onbat esaten badogu Jaun-
goicuaren izenian, ta Jaungoicuaren amodijua-
gaz; desio santubat, eguitade zucen bat, con-
seju on bat, limosna chiquibat, baso bete ur ca-
ridadez emotia, Jesus vijotz onagaz esate bat,
cerurutz zuzpiru bat eguitia; dana, dala, da-
nic gauzari chicarrena bere, Jaungoicuaren
izenian, ta Jaungoicuaren amodijua gaiti eguin
dana, ta eguingo dana, guztia zucen, ta ciatz
contauco deutsu Jaungoico onac. Ta guztien
sarija Ceruban ugari emongo deutsu, bera

(1) Psalm. 115. (2) Psalm. 118.

ameetan badogu, beste gauza guztia baino
 gueijago. Beste aldeti ez dau Jaungoicuac inor bere cas-
 tiguaico, bere pecatubac mereciduten daveen
 baino, gueijago. Impernuban condenauta, dagozan
 diabrubic, ta arimaac, ondo ezaütuten davee,
 dauqueen pena guztia, dala, curac pecatubaquin ira-
 batzi eveena. An dacutsee izori gastocuac, ce
 zucena, ta ze arteza dan Jaungoicua, con-
 denaubeen pecatuzco naijac, verbaac, ta egui-
 tadiac ondo pisauta, baeochari bere merecidu-
 ba, emoten deutsanian. Ez deutsa Jaungoicuac
 inori bere escatuco, emon deutsan baino guei-
 jago. Bost emon deutzazanari, escatuco deutsa
 hosteen errazoi. Bi emon deutzazanari, birena.
 Ta bat emon deutsanari, batena. Baina guztiai
 zuzen, ta artez, inor bere quexaric euquico
 ez daven moduban. Oh, Jaungoico zucena! ; Noc amauc
 ez dau bada, neurc entzula onac, ain Jaun-
 goico zucena, ta arteza? ; Ez dau mereciduten
 Jaungoicuac gueure amodijo guztia, carino
 guztia, ta vijotz guztia zucena, ta arteza da-
 laco? ; Ezdeutsagu entregauco Jaungoico zuce-
 nari bildur bagaric gueure borondatia oso oso-
 ric gueure gurari guztiaquin, sinistu ezquero
 bere izenian, ta bere amodijua gaiti ezauberaz
 esaten dogun, entzuten dogun, eguiten dogun,
 ta desietan dogun guztiaren sarija, zucen emon-
 go deultcula Ceruban? Errazoiaren usura eldu
 guinaneti, erijotzaco orduraguinoco ezauberaz-
 co, pensamentu, verba, eguite, nai, ta gura
 guz-

Icasiquizunac

47

guztien contuba, ta errazoia, nos, nun, cer,
celan, cegaiti, ceimbat bidar, ta ceimbat me-
sede, edo caltegaz izan dan, Jaungoicuari emon
biarco deutsagu guztioerremedijo bagaric. Con-
turic nausijeenac, conturic naastaubeenac, ta
conturic balijosuenac, eguin biarco ditugu Jaun-
goicuagaz. ¡Oh, ce sail andija! ¡Oh, ce cam-
po andija! Ceinbat estimau biar dogu bada,
neure cristinaubac, Jaungoicua zucena, ta ar-
teza izatia, gueure contubac guztia, gomuta
ditugunac, ta ez ditugunac, beragaz eguiteco!
¿Egon leiteque ezer maitegarrijagoric, ta gueu-
re vijotza beragana gueijago daroianic, Jaun-
goico zucena baño? ¡Oh, neure Jaungoico onal!
Beste ontasunic ez baceunca bere, ceu guztiz
zucena, ta arteza zarialaco, ameeetan zaitut nic,
vijotz guztiagaz, ta arima guztiagaz. Baita abe-
ratsa zarialaco bere.

III. Aberatsa da Jaungoicua. Ta au gaiti be-
re merceduten dau gueure amodijo osua. Erra-
parau eguizu pusca bat, cristinaubac; ¿Ce le-
cu dauqueen gueure vijotzeetan ondasunac? ¿Ce-
lan encanteetan daveen ondasunac gueure go-
gua? Ondasunac domeetan ditubee senduac, bee-
ratuten ditubee altubac, jasoten ditubee baxu-
bac, chiquituten ditubee andijac, ta azten di-
tubee chiquijac. Ondasunac arguituten ditubee
veguijac, poztuten davee vijotza, ta dagozan
lecuban dagozala, eureetara daroie gueure amo-
dijua. Beti izangoda eguija, ondasunac asco
ameetan diriala, ta dirubari guztia obeiduten
deut-

deutsee (1). Beti izango da eguija , ondasunac , ta diruba Jaungoico chiqui batzuc diriala (2). Aberats bati guztia ondo esaten deutsee , guztia obeiduten deutsee , ta guztia naija eguiten deutsee. Ta aberats izatia baino , beste paltari ez badauca , guztia estimeetan davee , ta ameean davee.

Bada , cristinaubac , ondasunac , ta aberatsa ainbeste ameean badira ; Jaungoicua da ondasun guztia daucazan aberatsa. Basuac guztia , soluac guztia , échiac guztia , Palaciuac guztia , Errijac guztia , ta Erreinubac guztia beria ditu Jaungoicuac ; ta nai davenari emoteco , daucaz. Ganadubac guztia ; arrainac guztia , choriac guztia , ta pristia genero guztia beria ditu Jaungoicuac ; ta nai davenari emoteco , daucaz. Cidar , Urre , Diamante , ta perla genero guztia beria ditu Jaungoicuac ; ta nai davenari emoteco , daucaz. Indijeetaco ondasun estimau guztia , Erregueen , ta andijeen eheetaco , ta soineco urrerija , seda , damasco , carmesi , ta perlerija guztia beria dau Jaungoicuac ; ta nai davenari emoteco , dauca. Esan daigun batera , Cerubac , eta luurrac , ta Ceruban , ta luurrian daguan guztia , da Jaungoicuarena ; ta naidavenari emoteco , dauca. Baiña au guztia ezerbere ezda , Jaungoicuac bera ameean daveenentzat , Ceruban gordeta daucazan ondasuneeen aldian. Ez aditu , ez icusi , ta ez entzun ezin guinaiz , San Pablo Apostolubac dinuanez (3), Jaungoicuac Ceruban

(1) Eccles. C. 2. (2) Oseas. C. 11. (3) Corinth. C. 2.

ban gueuretzat daucazan ondasunac. Bada, Cristinaubac, sugarrai darijon diru pusca bat, ta sitsac jaaten dituban luurreco gauza batzue, ainbeste ameean baditugu. Ceinbat gueijago, ta gueijago amau biar dogu gueure Jaungoico aberatsa? Cer dira munduco ondasun guztia, Jaungoicuagaz bat eguiteco? Cegaz naicotu guinai gueure vijotza Jaungoicuagaz ostian? Oh, neure Jaungoico aberatsa! Ezdot gura beste ondasunic, ceubaino. Eracutsi eguidazu, ondasun eguijazcuac ameean. Alderatu eguizu neure vijotzeti luurreco ondasun guztien amodijua, cen bacarric, eta beti amau zaidazan, beste gauza guztia baino gueijago. Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



IV. ICASIQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan: *Jaungoicuari zor deutzagun amodijua, Lauba, andija, ta indartsuba dalaco.*

Jaungoicuac meraciduten badau, neure cristinaubac, gueure amodijo guztia jaquituna, zucena, ta aberatsa dalaco; ez dau guichiago meraciduten *Lauba, Andija, ta Indartsuba* dalaco. Egonzaitez entzute onagaz.

I. *Lauba* da Jaungoicua. Ta au gaiti bere

escatuten deuteu gueure vijotzeco amodijo guztia. Laubaren izenagaz esan gura dot, ceubec esan oidozuna. Ta da, euquitia personiac modu on bat, ta gracioso bat guztienzat. Andija, ta chiquija, pobria, ta aberatsa, zaarra, ta gaztia, guztia estimetia, ta guztiai carinoz beguiratutia. Buru erechi bagacua, andiari bagacua, persona bat bere desprecietan ez davena, da duda bagaric *Lauba*. Munduban guichi usauba da eguijazco lau izatia. Andiarija, buru erichija, ta noberac edu ondasun, jaquiturija, edo entzute ez dauqueenai, casuric ez eguitia, ta ozta verba bat, edo bi, baino ez eguitia, da, guiza artian sarrijeen icusten doguna. Lau errial daucazana, lotsatuten da, bi baino ezdaucazan bati, verba eguiten. Aberats batec uste dau, mesede andi bat eguiten deutsala pobriari, verba bat, edo agur bat eguinagaz. Guraso pobre baten umia, descuiduan cerbaiten jaube eguiten bada, ija ez dau entzun gura Aita, edo Ama pobriaren icena bere. Ta oraindino guichiago nai dau, bere eche aberatsian sartu daquijon guraso pobria. Andiaru utsa, ta sobervija utsa da au. Guztia gorroto deutseena. Baina munduban chitoasco aguinduten davena. Ta beste aldeti chitoasco estimeetan dana, da lautasun eguijazcua. Gogoratu daigun bada, cristinaubac: ¿Ya gueure Jaungoico ona, Lauba dan, edo ez? ¡Oh, neure Eguila guztiz maitia! Ceu zara baccarie eguijazco Lauba. Ez zara bategaz bere lotsatuten. Ez zara inogaz bere aaztuten. Ez

deut-

Icasiquizunac

51

deutsazu inori bere ceure Palacijoco atia isteen.
 Andijeentzat , ta chiquijeentzat , aberatseentzat,
 ta pobreentzat , ondraubeentzat , ta desondrau-
 beentzat , guztientzat daucazu vijotza zabalic,
 neure Jaungoico ona , ceu amau ezquero. Ain
 opa onagaz erantzuten deutsa Jaungoicuac , Cu-
 rutzian josita dagan lapurrari ; cein Jerusale-
 go Juez nausijari. Ain pozic sartuten da Jaun-
 goicua Lazaro , Marta , ta Madalenaren eche
 humildian ; cein paresijo aberatsarenian. Ain
 gustoz verba eguiten deutsa Jaungoicuac , ure-
 tara doian Samariaco emacume pecatarijari ; cein
 Isrraelgo Legueguin , Aguintari , ta Obispuai.
 Ain arpegui onagaz beguiratuten deutsa Jaun-
 goicuac , Bera , ta Eleisa guztia perseguidu di-
 tuban Saulori ; cein da Eleisa guztiaren Buru
 eguin daven Pedrori. ¡Oh , Jaungoicuaren vi-
 jotz zabala ! ¡Oh , ceure maite guztien eraraco
 vijotz Santuba ! Ceure amodijua escatuten deuts-
 euzu bacarrie. Ceu amau ezquero , guztientzat
 zagoz prest. Moises , Arzain pobriagaz verbee-
 ta luciaguac daucaz Jaungoicuac , Egitoco Fa-
 raon Erreguiagaz baino. David , Arzaina sar-
 rijago visiteetan dau Jaungoicuac , Saul Isrrael-
 go Erreguia baino. Samuel mutil gaztiari obe-
 to zabalduen deutsaz Geruco jazo altubac , ta
 santubac , Eli , Sacerdotiari baino. Eupin bes-
 te milla juzogaz eracusten deutsu Jaungoicuac
 Escritura Sagraduban , guztientzat daucan on-
 tasuna , ta lautasuna.
 Munduban dagozan , guizon , ta emacu-
 me guztiai , nai diriala entzute andicuac , nai
 baz-

baztarbaten aaztuta bitzi dirianac, nai aberat-
 sac, nai pobriac, nai euren gach eguinac
 gaiti ervestetubac, nai Tronu andijeetan jarrita
 dagozan Erreguiac; dan moducua dala, guztiai
 entzutia emoten deutsee Jaungoicuac. Guztiai
 edeguiten deutseez bere misericordijaren atiac
 Jaungoicuac, ta esquintcen deutsee vorondate
 onagaz gracijsantia, ta bere adisquidetasuna.
 ; Nor arrituten ezda, cristinaubac, gogoratu
 ezquero Jaungoicuaren lautasun neurri bagacua?
 ; Ce gauza andija, edoceinec Jaungoicuagaz ver-
 ba eguin alizatia! ; Edoceinec, Jaungoicuagana
 juateco, beti atia zabalic euquitia! ; Enpeñu
 bagaric, vitaarteco bagaric, ta ate onduan zain
 egon bagaric, nos naidaven, Jaungoicuari ver-
 ba eguitia! ; Oh, Jaungoico ona! ; Oh, Jesus
 maitegarria! Ameetan zaitut nic neure vijotz
 guztiagaz, ain ona, ain presta, ta ain prestu-
 ba zarialaco. Ta ez daquit, ceinec amauco ez
 zairuban, gogoratu ezquero ceure ontasun
 nuerri bagacuac.

; Cer pensau guinai, neure entzula onac,
 icutsi ezquero, gueure Jesus, Jaungoico, ta
 Guizon eguijazcua, ain laster, ta pozic doiala,
 mendi arteco chabola baten daguean iquezguin
 tristia consoleetara, cein Palacijo andi baten
 daguean Erreguiagana? ; Carcela atsitu, illun
 baten preso daguana gana, cein seda, ta urre
 artian daguana gana? ; Eche zaar, jausi pobre
 batera, cein aberats barrira? ; Ain gogoz ga-
 vaz, cein egunaz? ; Ain gogoz urrinera, cein
 urrera? ; Cer pensau guinai? Ez bada, arritu,
 hu-

Itasiquixunac

53

humildau , adora , alabau , jaso , ta amau vijotz guztiagaz gueurè Jaungoico Ona. ¿ Ta cer eguiten dau Jaungoicuac Altareco Sacramentu Santu atan ? Mai Santu atara elduten dira umiac , ta nausijac , zaar ibili ezin dirianac , ta arpeguian , edo gorputzian gacha dauqueenac , jantzi pobria dauqueenac , ta jaso onie ezdauqueenac , mundubac sobrantzat daucazanac , ta castigauta daucazanac , graciaan dagozanac , ta pecatuban dagozanac. Baina guztientzat dago Jesus maitia Altara Santuban prest , isilic , ta humilde. Ta ceinec bere ontasuna gueijago maiten dauen , á gana dua Jesus , dana , dala , atseguin gueijagogaz , poz andijaguagaz , ta gogo obiaguagaz. ¡ Oh , Aingueru Santubac ! Ez zaitetz cansau Jaungoico altu , humilde , ta Laubaren ondo esatian. ¡ Oh , neure arimia ! Beguiratu eguijozu ceure Jaungoico onari , bai Ceruban , ta bai munduco lecu guztietan. Izan arren zu orainguino bere arerijua , amee-tan badozu aurrera , pozic bere adisquidet-zat artuco zaitu. Urtu zaite bada , albadaizu , neure vijotz liorra , ceure Jaungoico onaren amodijuán , ta ondo esatian , ain Lauba , ta Maitegarrija dalaco. Baita andija dalaco bere.

II. Andija da Jaungoicua. Ta au gaiti bere maitetu biar dogu , beste gauza guztiac baino , gueijago. Ez dago dudacic , neure entzula onac , gauza ona izan ezquero , ceimbat andijago , aimbat naijago , ta maitiago. Gauza chiquija , ta guichija , ona izan arren , ecer ezian gue-ratuten da. Ta ez da aimbeste estimeetan. Adis-

Itasiquixunac (s) xps mlt qui-

quide pobria, leijala izan arren, adisquide chi-
quija da. Urria estimauba izan arren, ain gui-
chi bada, asco balijo ez dau. Gauzaric onee-
nac, guichi dirianian, gueratuten dira ecer ezian.
Baina andijac dirianian, guztien auan, ta vi-
jotzian daviltz chito estimau.

Jaungoicua da bada, neure cristinaubac,
on guztien artian bacarric ona, ta andi guz-
tien artian bacarric andija. Andija da Jaungoi-
cua, ta chito guztiz ondo esatia merceduten
davena, dino David Erreguiac (1). ¿Nora juan-
go nas? Esaten deutsa Erregue Santubac berac
Jaungoicuari (2): ¿Nora juango nas ceure es-
piritubaganic, ta nora igues eguingo dot ceure
arpegui santuti? Ceruraguino igoten badot; ceu
an zagoz. Impernuraguino jasten banaz; an be-
re prest zagoz. Eguac artuta, iragoten banas
egun sentijan ichasuen baztarreraguino; an be-
re ceure escubac euquico nau. Pensau neban,
menturaz illunac alderatuco nindubala ceu ga-
nic, ta gavac ezcutaucó nindubala ceure au-
rreti. Baina gavac argui eguiten deutsu, illu-
nac leguez. Gava, ta eguna zuretzat bardinac
dira. Onan canteetan evan, neure entzula onac,
David Erreguiac Jaungoicuaren anditasun neur-
ri baguia.

Ezin sartu leiteque guizonaren ezauberaan,
ce altuba dan Jaungoicuaren anditasuna. Lecu
guztietan, ta dempora guztietan dago Jaungoi-
cua guztiaquin, ta bacoçhagaz. Jaaten bagagoz,
gueugaz dago. Lò bagagoz, gueugaz dago. Es-
naa-

(1) Psalm. 47. (2) Psalm. 138.

Itasiquizunac.

55

naátuta bagagoz , gueugaz dago. Gaviltzan lecuban , ta gagozan lecuban , beti gueugaz dago gueure Jaungoico ona. Ichasuac baino , zabalago da , Cerubac baino , altubago da , criatura guztia cabidu ezin daveena , da. Edo obeto esateco , beste gauza guztia ecer bere ez dira , utsa dira , Jaungoicuaren anditasunagaz bat eguin ezquero. ¿Noc neurtu dau Jaungoicua? ¿Noc ecer eracutsi deutsa? ¿Noc ecer emon deutsa? ¿Nori ecer escatu deutsa? ¿Nos egonda eceren preminaan? ¿Nundi urten dau mundu andi onec? ¿Nundi Ichaso ondo luceco dunac? ¿Nundi Eguzquijac , ta Izarrac? ¿Nundi Ainguerubac , ta guizonac? ¿Nundi Cerubac? ¡Oh! Jaungoico andijaren espirituzco colco altsu , ta santuti urten davee guztia. Baina , guztia bat eguinda bere , Jaungoicuaren anditasunaren ezaungarri apur bat baino , ez dira. Beste milla Ceru , milla mundu , ta milla bidar milinoiac gueituta , eguingo balitu bere Jaungoicuac , bere anditasun neuri bagacua gueratuco zan , beti leguez osoric.

¡Oh Jaungoico andija! ¿Noc ameeetan ez zaitu? ¿Cer da au , cristinaubac? ¿Ez dogu amauco gueure Jaungoico on , andi , bacarra , beste gauza guztia baino , gueijago? ¿Ez dago beti gueugaz? ¿Edo , obeto esateco , ez gagoz beti beragaz? ¿Ez da , ordu guztietan topau biar doguna , alabau biar doguna , ta amau biar doguna? ¿Ez da zoraquerija itsuba , munduco gauza on isquijeen villa ibiltia , gauza on guztia beragaz daucazan Jaungoico andi-

dija, gueugaz euqui ezquero? Ameetan bado-
gu Jaungoicua, guztia da gueuria. Ameetan ez
badogu; dan baisen andija izan arren, beti
gueugaz egon arren, ta guztiz ona izan arren,
ez da gueuria, gueu castigueetaco baino. ¡Oh,
cristinaubaren itsutasuna, ain Jaungoico andi-
jaren bildur ez izatia! ¡Aren legue santuba aus-
tia! ¡Pecatuban vitzi izatia! ¡Jaungoicuaren con-
tra jaquitia! ¡Oh, Jaungoicuagaz dagozan po-
bre aberatsac! ¡Oh, pecatuban dagozan aberats
pobriac! ¡Oh, neure Jaungoico guztiz andija,
ta guztiz bildurgarrija! Ceu ameean zaitut neu-
re vijotz guztiagaz, ta arima guztiagaz, an-
dija zarialaco. Baita indartsuba zarialaco bere.

III Ontasun guztietan da amai bagacua gueu-
re Jaungoicua. Ta oneen artian bat da *Indart-
suba* izatia. Ezin ucatu guinai, cristinaubac,
chito asco nai oidogula, gueure adisquidia
ezertacua, sendua, ta indartsua izatia. Argala,
epela, ta macala bada, berac gueu zaintu biar-
rian, gueue bera zaintu biar dogu. Orregaiti,
ezertaco ezdanari, coitaubari, luur jota dāgua-
nari, entzute guichi emoten deutsagu. Baina,
bada gueure adisquidetatzacua Animosua, Sen-
dua, Jarquijs, Indartsuba, inoren bildurric ez
daucana, ta arerijo guztietati librau guinaizana,
entero maite dogu. Ta agazcua ez galdutia
gaiti beste bagaric, sarritan causeetan gara.

Jaungoicua da bada, neure entzula onac,
adisquide Indartsuba bacarrie. Jaungoicuaren
adisquidiac bagara, ta Jaungoicua ameean ba-
dogu; ez daucagu cetan bildurric euqui ino-
ren

Icasiquizunac.

57

ren bere. Jaungoicuaren adisquidia banas seguru nago arerijo guztietati. Alperric jaguico dira nire contra galdugarri guztia. Alperric munduco Aguintari, ta borregu guztia impernucopuri ja guztiaquin armauco dira nire contra; ez deutstee buruco ule bat quenduco, Jaungoicua bada neure adisquidia. Impernubaren astuzija guztia, ta munducuen gorroto, ta alizate guztia elcho bat bere ez dira, Jaungoico Indartsubagaz pelietaco. Jaungoicuac, bere adisquidiac zaintuteco, ichasuae liortuten ditu, Eguzquija guertuten dau, laba gorriac oztuten ditu, artzac, eta leoiac mansotuten ditu, ta naturaleciaren legue guztia aldatuten ditu. Jonas bere adisquidia arrain baten tripan dauca vitziric iru egunian, ta andi aterata, bialduten dau prediqueetara. Daniel artz goseen artian gordeetan dau pena bagaric. Babilonijaco umiac laba ixiuan daucaz erre bagaric. Israeltarraichasua liortuten deutsee, Faraoneganic libreetaco. Ta mendi soilian Ceruti bialduten deutsee janari gozua, gose dirianeco. Lazaro ill da, laugarren egunian vitzuten dau. San Pedro catiaz lotuta, ta soldauz ingurututa daguan lecuti, libreetan dau, inoc igarri bagaric..... Enpin ez munducoc, ez impernucoc, ez ezec bere ezin leiquegu ecer bere gachic, gueu Jaungoicuaren adisquidiac izan ezquero.

¡Oh, Jaungoico sendua, ta indartsuba!
 ¿Nor azartu leiteque, ceure contra ecer eguiten?
 ¿Noc gach eguin leguijuee ceure adisquidiai?

i 2

¿Nos


¿Nos ichi dozu , ceu maite zaitubana , arerijuaren escubetan , zaintu bagaric ? ¡Oh ! Inos bere ez. Noe justubac ez eucan ujaleen bildurric. Moiseac ez eucan Faraonen bildurric. Eliasec ez eucan Acazen bildurric. Apostolubacez euqueen inoren bildurric. Martirijac ez euqueen inoren bildurric. Virgina Santaac ez euqueen inoren bildurric , Jaungoicuaren adisquidiac zierialaco. ¿Ceimbat Doncella argalec desapijau ditubee Aguintarijac , Erreguiac , verdigubac , carcelaac , laba gorijac , ta penagarri guztiaac bildur bagaric ? ¿Cer eguin even Santa Eulaliac , Santa Inesec , Santa Luciac , Santa Aguedac , ta beste millac Jaungoicuaren laguntasunagaz bacarric ? ¿Noren bildur zan ene ama Santa Teresa , impernucos demoninos guztiaac desapijetan zitubanian Santo Cristo bategaz ? Inoren bere ez. Jaungoicuaren adisquidiac cirian ; ta Jaungoicuac zaintuten cituban.

Sinistu daigun bada , cristinaubac , Jaungoicuaren amodijoric ezac , ta Jaungoicuaren adisquide izan ezac , daczala gueure vijotceetara bildurrac guztiaac. Munduco ondasuneetan , adisquideetan , ta luurreco gaucceetan iminten dogu gueure gogua. Aaztuten gara Jaungoicugaz. Bilatuten dogu gueure ondo egotia , ez daguan lecuban , ta biarreen dogunian , gueratuten gara utsic , eta penaz beteric. Topau daigun bada , cristinaubac , Jaungoicuaren adisquidetasuna. Gorde daiguzan bere aguindu santubac. Euqui daigun beragan compijantz osua. Ta amau daigun gueure Jaungoico ona *Lau-
ba,*

Icasiquizunac

59

ba, *Andija*, ta *Indartsuba* dalaco. Onegaz
vitzico gara seguru gueure arerijuetati ; ta ja-
dijchico dogu Ceruco betico gloriya. Aitiaren,
Semiaren , ta Espiritu Santubaren icenian.
Amen.



V. ICASIQUEIZUNA.

Ceinetan eracusten dan : Jaungoicua dala adis-
quide *Pirmia*, *Emonzailia*, ta *Parcazailia*.

Jaungoicua ameeetan davenari, gauza guztiac
erraztuten jacz, gachac iruri arren, dino San
Agustin Glorioiosuac (1). Jaungoicuari ondo
gura deutanarentzat, ez dago gauza gachic, ez
aguindu gogorric, ez eguin ezinic. Jarraitu
daijeegun bada, neure entzula onac, voronda-
tezco adiera bategaz, leen esan danaren gai-
nera, gueure Jaungoicuaren ontasunai. Gogora-
tu daigun oraindino, Jaungoicuaren maiteta-
sunera gueure vijotz liorrac, sicubac, otzac,
ta luurrezcuac iracoiteco, ta guere gogua obe-
to preteetaco : Ce adisquide *Pirmia*, ce *Emon-
zailia*, ta ce *Parcazailia* dan gueure Jaungoi-
ce ona, gueuc vijotz guztiagaz bera bacarric
ameetaco.

I. Adisquide *Pirmia* da Jaungoicua. Ta au
gaiti bere escatutendau gueure omodijo osua,

Gau-

(1) in Psalm. 68

Gauza jaquina da, adisquidiac, ona izatico, pirmi ac izan biar davena. Ez da ezer esaten orain, adisquide chaarrac, eta pecatuzcuac gaiti. Areec ceinbat lasterrago alcarti nichijago, ainbat pecatu guichijago. Ez bada esatenda au adisquide onac, eta Jaungoicozcuac gaiti. Onac, eta Jaungoicozcuac izan arren munduco adisquidetasunac, euraquin dauquee penia, ta bildurra. Ta ceinbat dan alcarren amodijua, ta carinua andijagua; aimbat da alcar galduco ete daveen, edo ez ete daveen, arduria bere andijagua. Ara emen munduco zelo arrabijaubeen, ta calteguin andijeen asieria. Asco nai izatenda, ta maitetutenda adisquide pirme bat. Baina nequez topeetan da munduban. Au gaiti umeen adisquidetasunac ez dira estimeetan, laster galduten dirialaco. Ta nausijeenac bere bilburra, arduria, ta celo aguincarija eureequin dauquee gueijeenian. Ta descuiduan topeetan badira munduban adisquide bi, beti alcar maitiac, eta pinac, David, eta Jonatas leguez: Bata, baino bestia (oidanez) leenago illgo dira. Ta vitziric gueratuten danac, negar eguingo dau, adisquide ona paltau jacolaco, David Erreguiac eguin evan leguez. Ta ceinbat adisquide andijagua, aimbat pena andijagua.

Ez dauca bada, cristinaubac, Jaungoicuaren adisquidetasunac onaco arduraric, bildurric, edo galduco ete jacun penaric, gueuc ameeetan badoga bera, beste gauza guztia bano, gueijago. Ez da aldatuten gueure Jaungoico onaren gogua. Atzo zana, da gaur; ta gaur dana, izanda, ta izango

Itasiquizunac

61

go da beti. Munduba baino leenago zana, mundubaren asi eraan zana, ta gaurco egunian dana, izango da beti. Ez gaisuac argalduten dau, ez eguzquijac baltzuten dau, ez otzac zurituten dau, ez edadiac zaartuten dau, ez biarrac canseetan dau gueure Jaungoico ona. Munduco guiza aldiac aldatuten dira, Erreinubac, ciudadiac, ta echiac, batzuc birrindu, ta beste batzuc eguin, guztiac aldatuten dira. Ondasunac, osasuna, edadia, opicijuac, ta munduco naijac guztiac aldatuten dira, ta mu-deetan dira. Adisquidiac bere algarregaz aaztuten dira, edo alcarreganic apartetean dira. ¿Ta ciembat bidar bata impernura, ta bestia Cerura? Abel, ta Cain adisquidiac cirian; Abel Ceruban dago, ta Cain impernuban. Samuel, ta Saul adisquidiac cirian; Samuel Ceruban dago, ta Saul impernuban. Jacob, ta Esau adisquidiac cirian dempora baten; Jacob Ceruban dago, ta Esau impernuban. Nos bait adisquide izan arren, ez dago adisquide pirmeric munduban Jaungoicuz ostian.

Gueuc amectan badogu Jaungoicua, beste gauza guztiac baino gueijago, bera da gueure adisquide pirme bacarra. Nai gaisotu nasala, nai pobretu nasala, nai zaartu nasala, nai desondrau nasala, nai carzelaan naguala, nai erri-ric erri aldatu nasala, nai ill nasala; neuc amectan badot Jaungoicua vijotz guztiagaz, neubanas bere adisquidia, Jaungoico ona beti izango da nire adisquidia, ta ez nau inos bere bacarric ichico. ¡Oh, neure Jaungoico mai-tia!

tia! ¿Ez zaitut bada nic amauco vijotz guztiagaz, ta arima guztiagaz, neure adisquide beticua, ta primia zarialaco? Nai neuque beintzat, Jauna, ceu bacarric ameeitia, *Primia*, ta seguruba zarialaco. Baita Emonzailia zarialaco bere.

II. Jaungoicua da *Emonzaile* eguijazcua. Ta au gaiti bere zor deutsagu Jaungoicuari gueure amodijo guztia. Munduban icusten dogun-z, gaucia emoten dabeenac, estimaubac dira. Ta ceimbat gueijago emoten daveen, aibat estimaubago. Adisquidia izan arren, urrija, ta zequena bada, esaten da alacua gaiti: *Beretzat obia dala, inorentzat baino*. Baina gaucia ugarri emoten davena; ta, endamas atzera biurtuteco escaari bagaric, emoten davena, guztia estimectan davee, ta ameeitan davee vorondate onagaz.

Guazan bada, cristinaubac, errazoe onetara. Ta icutsi daigun; ¿Ya Jaungoicuac, emonzailia dalaco, merceduten daven gueure amodijo osua? Onetaraco gogoratu biar dogu, Jaungoicuac ez daucala inoren bere preminaric. Ceruric, eta munduric ez balego bere, Aingueruric, edo Santuric ez balego bere, Criaturaren errasturic erne, sortu, edo jaijo ez balitz bere, Jaungoicua Jaungoico izangozan beti. Ceruba ustuco balitz bere, ez leuque Jaungoicuac ezer galduco. Ta condenau guztia salbauc balira bere, ez litzaateque, dan baino, gueijago izango. Berez da *dana* Jaungoicua, ez inoc emonda. Au gaiti ez dau inoc pensau biar:

Icasiquizu nac.

63

biar : edo limosna bat , edo barau bat , edo beste caridade bat eguiten davenian ; Meza bat, edo Sermoe bat entzuten davenian ; edo beste gauza oneen bat eguiten davenian , mesede andiren bat Jaungoicuari eguiten deutsalà. Jaungoicuac naì dau , gu onac izatia , ta eguitade on asco gueuc eguitia , gueu amectan gaitubalaco , ta gueuri Ceruba emon gura deusculaco , ez gueure eguitade oneen preminia daucalaco.

Onezaz ostian gogoratu biar dogu , Jaungoicuac ez deutsalà inori bere ezer zor. Jaungoicua da bacarric , zorric ez daucana. Emoten deuscu guztia , duaric emoten deuscu bere vorondate santiac gura dabelaco. Ta emoten deuscu , berarentzat ezer atzera escatu bagaric.

¿ Cer emoten deuscu , edo cer emoten ez deuscu bada , neure cristinaubac , gueure Jaungoico Emonzailiac ? ¿ Noc emon deuscu , daucagun izatia ? ¿ Nor gaiti ez gara zubez guztioç , eta ni arri bat , zur bat , pristija bat , edo ezer bere ez ? ¿ Noc eguin gaitu guizon , ta emacume ? ¿ Noc gorde guinduzan gueure amaren sabelian , ito bagaric ? ¿ Noc emon deuscu , ta gordeetan deuscu adizailia , vorondatia , ta gomutarija ? ¿ Noc emon deuscu beguijac , be-larrijac , miina , escubac , oinac , osasuna , ta beste gorputz ondo amaitubaren zati biarrecuac ? ¿ Noc gaucaz zoratu bagaric , itsutu bagaric , gortu bagaric , errendu , edo galdu bagaric , beste asco galduta dagozan leguez ? ¿ Noc emectan ditu gueure laboriac soluetan , azten

k

di-

ditu , ta elduten ditu? ¿Egunaz eguzquijagaz,
ta gavian illarguijagaz noc bisiteetan gaitu? ¿Noc
eraguiten deutzaz giraac udiari , ta negubari ur-
te oro? Cer izango litzaateque , beti gava ba-
litz? Cer beti udia , edo beti negaba balitz?
¡Oh , ceibat mesede andi duaric orduban
orduban eguiten deutcuzan gueure Jaungoico
onac! Ta oneec guztioç bere adisquidiai , ta
arerijuai , justubai , ta pecatarijai , cristinau-
bai , ta gentilai , Judegubai , ta eregiai. ¡ Oh,
ordaina bagaco Emonzaile Ugarija!

¿ Ta cer emoten deutsee bere adisquidiai,
edo cristinau eguijazco izan gura daveenai?
Emen agortuten da guizonaren jaquiturija.
Emoten deutscu Jaungoicuac ber seme maitia,
guizon eguinda oguijaren , ta ardauaren irudi-
jan. Emoten deutscu Ceruco ondasuneen sinis-
rutia destierru onetan , arimaco gracia , Espiritu
Santubaren doiac , gueure pecatubeen parcacino-
ia , Ceruba irabazteco biar doguna , bere adis-
quidetasuna , ta Ceruban bere Izate Jaungoi-
cozcua , gueuc bera ameeñan badogu vijotz
guztiagaz. Daticadan guztia , ta nasan guztia,
Jaungoicuac emonda daucat. Ta neuc ameeñan
badot Jaungoicua , Jaungoico guztia da neuria,
ta Jaungoicuagaz beste ondasun guztiaç bere
neuriac dira. ¡ Oh , Jaungoico zabala! ¡ Jaun-
co ona! ¡ Jaungoico Emonzaile Ugarija! Amee-
ñan zaitut , ta amau gura zaitut nic neure vi-
jotz guztiagaz. Emon eguidazu gracia , Jauna,
ceu baino , beste gauzaric inos ez ameeñaco.

Oh , ce zoraquerija , cristinaubac , ecer
be-

bere balijo ez daveen luuraco gauzaac topeetia, estimeetia, ta ameeia Jaungoicuaren legue Santubaren contra! ¡Oh, Jaungoicuari ichita, munduban gustuac nai ditubanaren itsuba, ta errucarrija! ¡Oh, munduco ondasuna, ondria, estimacinoia, ta atseguina, Jaungoicua baino, gueijago ameeian daven cristinaubaren zorua! Icusico baguendu, esqueco bati esquintzen deutsala Erregue batec bere maija, ta Palacijua ondasun guztiaquin betico duaric; ta Erregue Jaunaren esquini ugarija nai ez da, ateric ate davilela esqueco á goseric, eta erdi biloxic; Ez guenduque esango zorua dala? Bada beste aimbeste, edo, obeto esateco, bardin bagaric zoruago da, gauza on guztiaquin duaric esquintzen deutsazan Jaungoicua, ameeian ez daveena. Ta au sinistuta, Jaungoicuaren gorrotuan egotia, peccatu mortalian vitzi izatia, ez da, izan leitequian zoraquerijaric andijeena, edo negargarriric andijeena? Duda bagaric, cristinaubac.

Orregaiti esaten dau Jaungoicuac Jeremias Propheta Santubaren aoti (1): Icaratu zaitez Cerubac, ta birrindu zaitez Ceruco atiac. Gauza deunga bi eguin dirubee nire gentiac, neu izanic ur vitzi guztien iturri ugarija, ichi na-vee, ta juan dira, pozu chistarretaco ur berdiac edaatera. Esango baleu leguez Jaungoico andijac pecatubaren contrato asarriagaz: neunas, gustuac, atseguinac, poza, ondria, osasuna, ondasunac, vitzirzia, gracia, ta Ceruban betico glorijs guizon, ta emacume guztiai

k 2

dua-

(1) C. 2.

duarie esquini deutseedana. Ta eurac neuri ichita , bilatu ditubee , ta amau ditubee mundauc ondasun ugardunac , ondra illunac , gusto atsitubac , ta atseguin mingochac. Onan que-xectan da Jaungoicua pecatarijaren contra , neure cristinaubac. Ez gaitezan bada zoro izan. Amau daigun Jaungoicua , beste gauza guztiac baino gueijago , Emonzaile ugarija dalaco. Baita Parcazailia dalaco bere.

III. Vijotz on baten aparteco senallia da, gach eguindeutsanari parcatutia , ta arerijo garbatubagaz leen baixen adisquide izatia. Munducuen artian au guichitan icustenda. Ugazaba batec ez dau beinguan , osteria echian artuten , sarri deungaro eguin deutsan crijaduba. Erregue batec , ez bere Palacijoti , ece Erreinuti bere laster quenduten dau , bere contra jagui dan arerijua. Jaungoicua da , onetan bere aparteco ontasuna eracusten deutcuna. Pecatu mortala eguiten davenac , opendiduten dau Jaungoicua , injurijeetan dau Jaungoicua , desondreetan dau Jaungoicua , salduten dau Jaungoicua , ta , Jaungoicuaren arerijo nausijagaz bat eguinda , jaguiten da Jaungoicuaren beraren contra. ¿Ta cer eguiten dau Jaungoicuac alaco esquer chaarreco cristinaubagaz? Cristinauba bera garbatuten bada bere gaisqui eguinagaz , parcatuten deutsa Jaungoicuac bere pecatuba , ta gueratuten da , leen baixen adisquide Jaungoicuagaz. Cristinaubac pecatu mortalagaz asarratuta euqui arren Jaungoicua , esaten badeutsa vijotz osuagaz , ta damu eguijazcuagaz : *peca-*

Icasiquizunac

67

tu eguin dot, Juuna; damu dot, Jauna; parcatu, Jauna; misericordija, Jauna; Ez dot osteru eguingo, Jauna; compeseetan dot, Jauna, neure pecatuba. Au esanagaz, ta eguinagaz batera, aaztuten da Jaungoicua, pecatarijac eguin deutsan injurijagaz. Ta artuten dau bere echian, bere Palacijuan, bere maijan, ta bere onduan, bere contra jagui dan guizon, edo emacume á, beti bere adisquide izan balitz leguez.

!Oh, neure Jaungoico ona, ta Parcazaillia! ; Noc amauco ezditu zeure erraija bigunac, ta misericordijosuac ; Noc urtuko ez dau bere vijotza, neure Jesus maitia, ceure amodijugaz, ceure vijotz amodijozcuari, carinosuari, ta parcazailliarri beguiratu ezquero? ; Oh, cristinaubac, nos asico gara, gueure Jaungoico Parcazaile ona ameeetan! ; Oh Madalena! ; Oh, San Pablo! ; Oh, Erregue Penitentia! ; Oh San Agustin! ; Oh, Pelagia! ; Cer esango cenduque zubez Jaungoicuaren vijotz biguna, ta parcatuteco, presta gaiti? *Berandu asi nas, Jauna, ceu ameeetan*, esango leuquee, ta esaten even penitente areec guztia; *Ta ondo damututa gagoz, leenago asi eza, ceu ameeetan*. ; Cer esango dau Santa Teresa, gorputzezco Serapinac, bere vijotzian cavidu ezin dan Jesusen amodijua gaiti? Aingueru batec suzeo ezpatiagaz nasaitu biar deutsala bere vijotza, esango dau Teresac, caviduco badau Jesusen amodijo Santuba. ; Oh, ce dichosuac onan pensau daveenac! Ta baita guen bere, cristinau-

naubac , ameeetan badogu gueure Jaungoico Parcazailia. Acordeetan nas bada, neure Jesus ona, pecatu mortala eguin dodan beste bidar, izan nasala zeure arerijo esquer chaarrecua. Aimbeste bidar merecidu izan dodala, ceuc ni impernucio ondarreetara condeneetia betico. Parcatu deustazun beste bidar, librau nozula, edo atera nozula impernuti, nun sartu biar nevan popuertza neure erruz, ceuc parcatu ez baceunst. Adorau zaijeezala bada Cerubac, eta luurrac; Jesus Parcazailia. Ta ill nadilla mila bidar ni, ceu osteria opendidu baino leenago, ta ceure amodijo Santuba neure vijotzeti apartau baino leenago. Alan izan dedila, Jesus, Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren Izenian. Amen.



VI. ICASIQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan : Jaungoicua dala adisquide *Carinosua* ; guztien *Eraracua*; ta *Beticua*.

Jaungoicuac euquiarren, esan dirian ontasun guztiac, gueure vijotzeetaco amodijo osua beragana tiratuteco; balitz gueure Eguilla Santuba, bera ameeetan davenareizat, asarria, gogorra, zitala, itzaltsuba, edo arpeguiera astunecua, ez lituquee guizonac paltaco achacuijaac,

Icasiquizunat.

69

jaac, Jaungoicuari ichita, munduco gauzaac ameeetaco. Baina ez. Gueure vorondate gaistua izango da, ta gueure erruba izango da, gueure Jaungoico ona beste gauza guztiac baino gueijago, ameeetan ez badogu. Bada, da, bera ameeetan davenarentzat, *Carinosua*, *guztien Eraracua*, ta *Beticua*. Icutsi daigun, celan.

I. Ez da erraz neure cristinaubac, mundutaar bati aituten emoten, ce carinosua, ta ce biguna dan gueure Jaungoico ona, bera vijotz guztiagaz, ta arima guztiagaz ameeetan davenarentzat. Jaungoicuaren adisquide maite bat biar da, esaten deutsu San Agustinec, Jaungoicuaren adisquide eguijazcuai Cerubac eguiten deutseezan, erregalu gozuac, atseguinezcuac, ta carinosuac aituteco. Arrituta, cer pensau, ta cer esan ez daquijeela, gueratuten dira Eleisia-ren Gurasuac, Salomonen aoti Jaungoicuac bere Esposa Eguijazcuai esaten deutseezan verba gozuac, entzunda. Gorputz domaubac, arima garbijac, ta Jesusen amodijuagaz ixiota dagozan vijotzac, entzun biar ditubeen verbaac, diriala arrec, dino San Gregorijoc. Ogueta amar urtera eldu ez danec, ez ditubala iracurri biar, esaten eban San Geronimoc. ¿Cer izango eteda bada Jaungoico onaren carinua, ta biguntasuna bere adisquideentzat, ain verba altubaquin, ta gozuaquin, luurrezco garianoi, aituten emoten deutcunian?

¡ Oh, Jaungoico ona, ta guztiz maitegarrija! Ceuzara dura bagaric aitaric onecna, amaric bigu-

guneena, esposoric leijaleena, eracuslaric erru-
quiorreena, ugazabarie mansuena, Jauberic zint-
zueena, lagunic atseguinezcuena, ta adisquide-
ric carinosuena. : Noc amauco ez zaitu bada
Jaungoico ona, ceure ontasuna, biguntasuna,
mansotasuna, ta carinua probau ezquero : Cer
eguin ezdozu ceuc, ceure adisquidiac consolee-
taco, ta socorriduteco, biar orduban areec aur-
quitu dirianian?

¡Oh, ! Bela baten picuban bialduten deu-
tsazu Elias, ceure adisquidiari egunian egunian
oguiia, ta oquelia. Beste bela baten picuban
bialduten deutzazu Paulo ermitaino, ceure adis-
quide andijari ogui erdiia basora irudoguei
urtian, egun bat bere uts eguin bagaric.
San Roque gaisuari, ta zauritubari chacur
bategaz bialduten deutzazu oguiia. San An-
ton Abatari artzac bialduten deutzazuz mendi
bacarrian, San Pauloren gorputza enterretaco
lagunzat. : Baina noc amaitu, Jauna, ceure adis-
quidiari eguin deutseezuzan pinezaac, ta cari-
nua? Batari bialduten deutzazu ceruti chocola-
tia, bestiari musiquia, bestiari larrosaac, bes-
tiari ceruco ama maitia, bestiari ainguerubac,
bestiari etorten zachaeoz ceu, artuten dozu ce-
ure esposazat, luzatuten deutzazu ceure escu
santuba, emoten deutzazu, edo ereztuna, edo
ulzia, edo amodijo Santubaren senalle agui-
ri bat, ta betico bat. ¡Oh, Jaungoicuaren adis-
quide eguijazcuac ! ¡Oh, San Benito, San Ber-
nardo, San Francisco, Santo Domingo, San
Ignacio, Santa Teresa, Santa Rosa, Santa Ca-
ta-

talina... ta beste milla! Cenbec esan biar cen-
duque, ce biguna, ce gozua, ce atseguinez-
cua, ce presta, ta ce carinosua dan gueure
Jaungoicua, bera amectan davenarentzat. Amau
daigun bada, cristinaubac, Jaungoicua, *cari-
nosua* dalaco. Baita gueure guztion eraracua da-
laco bere.

II. Jaungoicua da guztien *Eraraco* adisqui-
dia. Ta au gaiti bere amau biar dogu, beste
gauza guztia baino gueijago. Beto munduco
guizon, ta emacume guztia, ta esan begui-
jee: ¿Ce erataco adisquidia goguan jausten ja-
cuen? Ta topauco davee gueure Jaungoicua,
eurac nai daveen eracua. Batzuc eureenez dira
tristia, ta lagunac bere tristia gura oiditubee.
Beste batzuc dira eureenez alegueriac, ta ale-
gueriac nai ditubee laguntzat bere. Gacha, edo
penia daucanac, naijago dau pena dunagaz,
edo mindunagaz verba eguin, oidanez, ain
bagacuagaz baino. Aberatsac bere naijago dau
aberatsa adisquidezat, pobria baino. Andiqui-
jac andiquija; pobriac pobria; zaarrac zaar-
ra; ta gaztiac gaztia.

Jaungoicua da bada, neure cristinaubac
guztien eraraco adisquidia. Beguirata beguijo gu-
ra davenac, naijeen daven moduban; alan to-
pauco dau gueure Jaungoico ona. Adisquide
tristia gura davenac: Triste topauco dau Je-
sus, gueure Jauna, ta Jaungoicua Jesemanico,
ortuban, tristeciac, eta larrjac odolezco izer-
dija ateraten deutsal. Triste Anasen echian, be-
laarri-ondoco gogorac emoten deutseezala. Tris-
te

te Caipasen echian, guzurrac ezarten deutseezala, uletiraca, chistu urtica, ta burla minbera guztia eguiten deutseezala. Triste, Pillarrari lotuta azoteetan daveenian. Triste Curutzia lepuan davela. Ta triste Curutzian josita, eseguita daguan lecuban. Adisquide alegueria nai davenac: aleguere topauco dau Jesus, bai Taborco mendijan Eliasen, ta Moisen erdijan Apostolubaquin. Bai illeen arteti viztuta, Ama Virginiari, Madaleniari, ta Apostolu Santubai aguertuten jacuenian. Bai Cerubetara igoten davenian. Ta bai Ceruban daguan lecuban.

Penazcua nai badau adisquidia; penazcua topauco dau Jesus ogueta amairu urtian, edo vitzi izanzan arte guztian. Bada Ama Virginiaren Sabel garbijan sortu zaneti, Curutzian illzan arte guztian, beti penaz vitzi izan zanguere Salbazalle maitia. Ta ez dau inoc irago penaric, desondraric, edo mingarriric, leenago Jesusec irago ez dabenic. Nai badau adisquide odol onecua, ta entzute andicua; Jesus da guztien artian odollic garbiheenecua, ta entzuteric andiheenecua. Erregue guztien Erreguia, ta Jaun guztien Jauna da bere Aita, cein dan Aita Beticua. Abraan, Isaac, Jacob, David, ta beste Patriarca, ta Erregue nausijeen alabia da bere Ama, cein dan Maria Santisimia. Bago andiqui andijagoric, edo Caballero nausijagoric, Jesus, gueure Jaungoico, ta guizon eguijazcua baino? Nai badau adisquide aberatsa, Jesus da Ceruco, ta munduco ontasun guztien jaubia. Aberats guztien aberatsa, edo aberats.

ba.

bacarra. Nai badau lotsa onecua, inoc burlatic eguingo ez deutsana, ta bere ondria zaiptaco davena. Jesus da lotsia, itzala, ta errespetua daucana. Verba bategaz luurrera ezarten ditu, bera preso artutera duazan Judas, ta soldaubac. Ija illian daguala, illunduten dau eguzquijs, icaratuten dau luurra, zatituten ditu arrijac, ta viztuten ditu illac Jesusec. Ta nai bategaz erabilten ditu Cerubac, ta luurrac, gura daven moduban.

Nai badau adisquide pobria. Ondo pobretuba topauco dan Jesus. bai Belenen jaijo biar davenian, ostatic, edo liorperic inoc emon gura ez da, corta batera jaijotera doianian. Ta bai alemanijeen erdijan jaijota, asca baten daguanian. Bai bere janian, ta soinian; bada San Joseperen aotzijaco irabacijagaz vitzi cirian Jesus, Maria, ta Jose; ta jantzi bat baino, eugui ez eban bere dempora guztian. A bere quendu eutseen, azoteetaco, ta curutzian josteco. Pobria gura badau adisquidia, ondo pobre dauca Jesus Curutze Santaan josita. Penaz dago aberatstuta; baina munduco ondasunez ondo pobretuta. Bere gorputz illa meztituteo, izaria bere inoc caridadez emonda, dauca. Jesusec ama bere pobria evan. Aita ordequa bere pobria evan. Laguntzat, edo discipulutzat artu citubanac bere, pobriac cirian, arrain arzailiac zirian. Orraco Altaraco Sacramentu Santuban bere pobre dago Jesus maitia. Lecu ascotan argui apur bat ozta bere aurrian iminten jaco. Ta corporal zaar, ta ascotan loi batzu been,

gainian dago Jesusen gorputz Jaungoicozera.
 ;Ce achaquija emon legui bada cristinaubac,
 gueure Jaungoico ona ez ameeaco? ;Izango
 eteda inos galduco ete dogun arduria? Ez, cris-
 tinaubac. Beticua da gueure Jaungoicua. Ta
 au gaiti bere amau biar dogu, beste gauza
 guztia baina, gueijago.

III ; Oh, ce atseguin andija cristinaubarent-
 zat, Jaungoicua beticua izatia! Ezda gueure
 Jaungoico ona gueu ganic inos aldenduco, gueu
 beraganic aldenduten ezbagara. Ez deuseu inos
 bere ichito, gueuc berari isten ezbadetsagu. Ez-
 dauca amairic Jaungoicuaren Erreinubac, ta ez-
 dauca amairic Jaungoicuaren adisquidetasunac,
 gueuc gueure guraz, ta borondatez pecatu
 eguinda, galduten ezbadogu.

Vijotz guztiagaz, gogo guztiagaz, arima guz-
 tiagaz, ta beti ameean badogu gueure Jaun-
 goico guztiz maitegarrija, beste gauza guztia
 baina gueijago, duda bagaric, da, gureztat
 Jaungoicua adisquide Jaquituna, adisquide Zu-
 cena, adisquide Aberatsa, adisquide Lauba,
 adisquide Andija, adisquide Sendua, adisquide
 Pirmia, adisquide Emonzailla, adisquide Par-
 cazailia, adisquide Gracijosua, guztien Eraraco
 adisquidia, ta Betico adisquidia. Jaungoico guz-
 tia, ta bere Erreinu guztia da betico gueuria.
 Ta ameean ez badogu Jaungoicua, beste gau-
 za guztia baina gueijago: Jaungoicuaren beti-
 co gorrotua, asarria, zamaija, Ceruti betico
 erbestetutia, ta impernucio betico erreetia de-
 moninuen, ta condenaubeen artian, guztia da
 gueu-

Icasiquizunac.

75

gueuria. Bijetati bata, Cristinaubac. Edo, betico Ceruba, edo, betico impernuba, guztia gueuria. Jaungoico onaren amodijo Santubaren sarija da betico Ceruba. Amodijo Santu onen paltaan betico impernuba. ¿Cer esan legui bada, cristinaubac, pediagaz eguiija oncec sinistuta, pecatu mortalian vitzu dan errucarrija gaiti? ¿Jaungoicuaren gorrotuan daquijala, daguana gaiti? ¿Pena bagaric legue Santuba auzita, Jaungoicua betico galduten davena gaiti? ¿Pecatu mortala eguiten davena gaiti? ¿Esango dogu, alaco cristinauba zorua dala? ¿Ala, itsuba dala? ¿Ala, gaistua dala? ¿Ala, pede bagacua dala? Ez da erraz, eguiija esateco, pecatu mortalian Jaungoicuaren gorrotuan sosisguz jan, ta lò eguiten davenari, ondo jagocan izen bat emoten. Esan daquijola bada San Paulo Apostolubagaz (1): *Jesu Cristo, gueurre Jauna, Jaungoico, ta guizon eguijazcua ameeetan ez davena, izan dedila madaricatuba, izan dedila escomulgauba, izan dedila beti condenauba.* ¡Oh, ce verba icaragarrijac! Baina Espiritu Santubac esanac. Errazoiari darraicozanac. Ain Jaungoico ona, ta maitegarrija pecatu mortalagaz opendituten davenac, ondo irabatzija dauca betico condeneetia.

Esnaatu gaitezan bada, cristinaubac, gueuri guztia balijo deutcun, betico diehiari beguiratuteco. Gogoratu daiguzan sarritan Jaungoicuaren ontasunac. Batian jaquiturija neurri bagacua, bestian bere ontasun zabalac, ta ugari-

(1) Ad Corinth. C. 16.

rijac, bestian bere betico Erreinu baquetsuba,
 ta dichosua, bestian gueuri deuteun carinua,
 amodijua, ta vorondate ona. Beguiratu daijo-
 gun gueure arimeetaco nai on guztiagaz, ta
 vijotzeetaco amodijo pin guztiagaz Jesu Cristo,
 gueure Salbazaile maitiari. Batzubetan Belengo
 ganudu asca pobrian bere jaijotzaan; beste bat-
 zubetan Ama Santisimiaren, ta San Josepe be-
 deincatubaren alizuan, ta besuetan; beste bat-
 zubetan Jesemanico ortu Santuban auspaztuta,
 odolezco izerdija darijola, gu gaiti oracinoe
 egulten daven lecuban; Nos bait, celan azotee-
 tan daveen; beste baten, celan curutzia le-
 puian davela, doian Calbarijora, ta daguan
 Curutzian eseguita. Beguiratu daijogun, illeen ar-
 teti vitzuten; Altaraco Sacramentu Santuban;
 en fin bere vitzitzaco, ta erijotzaco pausu san-
 tubeetan. Penseeta oneec ecarrico davee gueure
 vijotza Jaungoicua ameeetara, beste gauza guz-
 tiac baino gueijago. Ta auda asco, gu beti Ce-
 ruban dichoso izareco, Aitiaren, Semiaren, ta
 Espiritu Santubaren icenian.

Amen.

VII. ICASIQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan: *«Cer dan novera amee-
tia? Ta ceintzue dirian guere proximuac?»*

Icasí ezquero cristinaubac, lelengo aguindubac: escaruten deutsalá, Jaungoicua amee-
taco, beste gauza guztia báiño gueijago, ta celan dan
gueure Jaungoico ona, guztiz maitegarrija.
Onen ondoric Jesu-Cristo, gueure Jaunaren
esana, ta cristinaubaren eguin biarra da; amee-
tia gueure proximua, gueure buruba leguez.
Ez gaitezán bada engañau, cristinaubac. Pro-
ximua amee-
taco, daucagun aguinduba, chito
andija da. San Paulo Apostolubac diñtanez,
adulterijoric ez eguitia; ezer ez oostutia; inor
ez illtia; testigantza paltzoric ez emotia, ta
beste Jaungoicuac aguinduten deutcun guztia,
cabiduten da, verba oneetan; *amauco dozu
zeure progimua, ceure buruba leguez.* Proximua
ameetaco, gueure buruba leguez, jaquin biar
dogu, celan gueure buruba amau biar dogun.
Ascoc usteco davee, baquijeela euren buru-
bac amee-
tan. Ta izan leiteque euren gorput-
zac, ta gurarijac amee-
tan jaquitia. Baina Jaun-
goicuac aguinduten deutcun moduban, euren
burubac amee-
tan daquije-
nac, ez dira guztia,
eze guichijago bere. Au gaiti eracutsico de-
sut.

sut dotrina onetan: 1. *Cristinaubac celan amau biar daven bere buruba*, 2. *Nortzuc dirian gueure proginuac*. Prestau eguizu entzutia.

I. Laarreguijac, ta guichijeguijac eragotzita dagoz legue guztian. Borondatezco, ta ezauberazco gauza guztietan biar da moduba, ta ordenia. Alan, cristinaubac, Jaungoicuac aguinduten deutescunian, proxima ameeetaco, guere buruba leguez, moduren baten aguinduten deutescu, gueure burubac ameeetaco bere. «Celan baina amau biar dau cristinaubac bere buruba? ¡Ah, neure entzula onac! Emen dagoz utseguite asco. Gueure buruba esaten danian, aituten emoten da guizon, edo emacume guztia gorputz, ta arima. Arimia, ta arimiari darraicozanac, ta gorputza, ta gorputzari bere izatian darraicozanac, da guizona, edo emacumia. Ta au da, bere ordeniagaz, ta modubagaz bacoachac amau biar davena. «Baina celan? Jaungoicuac aguinduten daven moduban. Gueure arimia, ta arimaco adilarija, edo entendimentuba, ta nailaarija, edo borondatia, ta gorputza bere sentidu guztiaquin Jaungoicuac gueuri duaric emonac dira. «Ta cetaraco emon deutescu Jaungoicuac gueure burubac, gorputza, ta arimia? Bera ezaututeeco, bere naija eguiteco, bera ameeetaco, ta guero beti Ceruban bere ontasuna gozeetaco. Begaz amau biar ditugu gueure burubac Jaungoicua gaiti, ta Jaungoicua-rentzat. Beste gauzaric esatia, ordena guztia oquertutia da. Uts eguitia da.

Amáu biar dogu gueure izatia, Jaungoicua-

Icasiquizunari.

79

cuari graciaac emonda , guizon eguin gaitu-
balaco. Amau biar dogu gueure arimia. Ta
arimia ameeitia da , pecaturic ez eguitia. Bada,
pecatu eguiten davena , da bere arimiaren are-
rijua. Arimia , ta gorputza betico dichoso egui-
ten ditubana , da gracia. Ta au gura izan biar
dogu , beste gauza guztiaac galduta , bada bere,
gueure buruba , Jaungoicuac aguinduten deute-
cun moduban , ameeitaco. Gorputza , ta arimia
betico zoriguestoco eguiten ditubana , da pe-
catuba. Ta pecatubari gorroto izan biar deut-
sagu , beste gauza guztiai baino gueijago,
gueure buruba ameeitaco. Amau biar dogu gueu-
re gorputza , arimiaren crijaduba dalaco , ta
arimiari Jaungoicua serviduten lagundu dagui-
jon. Amau biar ditugu gueure entendimentuba,
vorondatia , ta sentizailiac , edo sentidubac,
arimiari , ta gorputzari lagundu daguijen , Jaun-
goicua serviduten , ta Ceruba irabazten. Amau
biar ditugu vitzitzia , lucia , edo laburra , gueu-
re osasuna sendua , edo macala , gueure gor-
putzaren zatijac osuac , edo ausijac , gueure
cleituba , jaquituriia , ta beste gueure izatiari,
ta izatiaren ontasunari darraicozan , ta daucagu-
zan gauza guztiaac. Baina guztiaac Jaungoicua
gaiti , ta Jaungoicuaren naija eguiteco. Jaun-
goicua serviduteco , ta obeto ameeitaco. Pecatu-
ti aparteeitaco , biar onac eguiteco , ta Ceruba
irabazteco. Gueure cer eguin nausija , ta bacarra
dan leguez , Jaungoicua ameeitia , ta gueu Sal-
beetia , onetaraco amau biar dogu gueure bu-
ruba , garian guztia , ta daucagun guztia. Ja-

zoten bajacu inos ordu esturic, ta ain esturic, cein da erremedijo bagacua dan : ¿Edo gracia galdu : Edo beguija galdu? ¿Edo pecatu eguin; edo besua, edo iztarra galdu? ¿Edo arimia galdu : edo vitzitzia galdu? ¿Edo Jaungoicua opendidu; edo cleituba, aciendia, ta adisquidiac galdu? Erabaguita dauca Jesu Cristo gueure Jaunac bere Evangelijo Santuban. ¿Ta cer? Leenago galdu biar ditugula gueure beguijac, gueure besuac, gueure iztarrac, gueure cleituba, ondasunac, adisquidiac, ta vitzitzia bere, gracia galdu baino, pecatu eguin baino, arimia galdu baino, Jaungoicua opendidu baino.

¿Cer balijo deutsa guizonari mundu guztia, bere arimiaren caltlan bada? Dino Jesu Cristo gueure Jaunac (1). Esango baleu leguez Jesus, gueure Ceruco eracusla andijac : ¡Oh, cristinauba! Zariana zariala, aditu eguizu, ta sinistu eguizu, gueijago balijo davela zure arimiac, munduco ontasun, entzute andi, portuna dichoso, ta atseguingarri guztia baino. Mundu guztia irabatzi arren, ceure arimia galduten badozu, guztia galdu dozu. Arimiaren caltia ezegaz bere erremedijauco ez dozu. Munduco gauza bat gaiti pecatu eguinda, condeenetan batzara, impernuti inoc bere ateraco ez zaitu. Beste lecu baten esaten deustcu Jesu Cristo gueure Jaunac dotrina au beratu : (2) Zeure beguija dala medijo pecatu eguiten badozu : Atesa eguizu beguija. Bada obadozu, begui ba-
ta-

(1) Marc. C. 8. (2) Id. C. 18.

Icasiquizunac.

81

tagaz Cerura juan ; beguija gaiti pecatu eguin, ta begui bijaquin impernura juan baino. Ceure escubac pecatu eraguiten badeutsu, ebagui egui-zu escuba. Bada obadozu escu batagaz Cerura juan ; escuba gaiti pecatu eguin, ta escu bijaquin impernura juan baino. Ceure oiña dala medijo , pecatu eguiten badozu , ebagui egui-zu oina. Bada obadozu , oin batagaz Cerura juan ; bijaquin impernura baino. Verba onetan esaten deutsu gueure Salbazaille maitiac: Beguijac , escuba , edo oina baisen maite doguna , bada bere , gueuri pecatu eraguiten deutsuna ; nai Aita , nai Ama , nai umia , nai senidia , nai adisquidia , nai gueure aciendia , nai gueure cleituba , nai beste edocein gauza , dana dala , leenago galdu biar dogula , pecatu eguin baino. Gueijago amau biar dogula gueure arimia , munduco gauza guztia baino. Au da gueure buruba ameeitia , Jaungoicua gura daven moduban.

Ta inoc dudeetan badau ; ija vitzitcia gordeetia gaiti , pecatu eguin leguijan? Au bere erabaguita dauca Jesu-Cristoc bere Evangelijo Santuban (1). Nun dinuan : Gorputza ill , baino besteric ezin deutsunari , ez eguijozu bildurric euqui ; baina bildur izan zaquijoz , gorputza ta arimia impernura bota leguizuzan Jaungoicuari. Emen eracutsten deutsu Jesus Maitiac: leenago galdu biar dogula gueure vitzitzia , Jaungoicua pecatubagaz opendidu baino. Gueijago amau biar dogula gueure arimia vitzitzia bai-

m 2.

(1) Math. C. 10.

baino. Arimia dan leguez gueure izate nausija, ta ija beticua, Jaungoicuac bere irudira eguindacua; au gaiti gueure arimia, ta arimaco Salbacinoia amau biar dogu, Jaungoicuaz urreen-go, beste luurreco gauza guztia baino gueijago. Onen ondoric amau biar dogu bai gueure vitzitzia, bai gueure osasuna, bai gueure gorputza, guere cleituba, ta Jaungoicuac emon deutescun guztia. Baina oneec guztioac amau biar ditugu, ta guztiaquin balijau biar dogu, Jaungoicuaren aguindubac gordeetaco, Jaungoicua bara ameeetaco, ta gueure arimia Salbeetaco. Arimiaren caltian gorputza, vitzitzia, osasuna, cleituba, ondasunac, gurasuac, adisquidiac, edo luurreco gauzaac ameeetia, da, bere burubari ondo gura ez izatia.

Cer!; naico cenduque, ceure echian gauza chaarra euquitia? Itanduten deutsa San Agustinec pecatariari. Ta erantzuten deutsa: Ezer bere ez cenduque naico chaarra euquitia; Ez emaztia, ez semia, ez alavia, ez crijaduba, ez crijadia, ez arcondaria, ta ez da oinetacuac bere. ; Ta nai dozu euquitia vitzitza chaarra, ta arima chaarra? Amaueguizu bada gueijago, esaten deutsa Santubac, ceure arimia, oinetacuac baino. ; Oh, ceimbat cristinauri esan leguijuen beste aimbete! Ameetan ditubee ; lastima gorrija! euren burubac Jaungoicua opendiduteco, ta diabrubac serviduteco. Ameetan ditubee eureen gorputzac, pecatu nasaijac beragaz eguiteco. Ameetan davee eureen osatsuna, Jaungoicuaren legue Santuba austeco. Ameetan ditubee eureen

Itasiquizunac

83

savelac, beguijae, belaarriac, vitzitzia, onda-
sunac, ta Jaungoienac emonda, dauqueen guz-
tia. Baina cetaraco? Ah, pecatari tristiciac! Sa-
bela, ta gorputza Jaungoicozat artuta, eurae
serviduteco, eurai gusto emoteco, pecatu egui-
teco, ta arima errucarrija condeneetaco. Ta au-
da, cristinaubac bere buruba ameeitia; Esango
dogu sobervijotso batec, envidijoso batec, gor-
rotosu batec; guleru batec, ordi batec, codi-
cijotso batec, lujurijotso batec, pecatari batec
ameetan davela bere buruba? Ez. Arimiaren are-
rijua, ta bere burubaren arerijua da, pecatu
eguiten davena. Amau daiguzan bada, cristi-
naubac, gueure burubac, Jaungoicuac aguin-
duten deuseun moduban, proximuac ameeetaco,
gueure burubac leguez. Baina onetaraco, ja-
quin biar dogu, ceintzuc dirian gueure proxi-
muac.

II. Munduban dagozan guizon, ta emacu-
me guztia, dira gueure proximuac. Ez euqui-
uts eguiteric, cristinaubac, gauza onetan. Nai
urrecuac, ta nai urrinecuac, nai errieuac, ta
nai erbesteguac, nai adisquidiac, ta nai areri-
juac, nai senidiac, ta nai atziac, guztia dira
gueure proximuac. Adan, eta Evaganio dato-
zan guztia, dino San Agustinec (1); dira
ceure proximuac. Guztioe gara alcarren lagu-
nac. Baina ez guztioe modu baten, Ceruraco
ustiari beguiratu ezquero. Cristinaubac izan ez-
arren, ceure proximuac dira. Bada ez daquiza-
zue, Jaungoiearen aurrian cer jatzoten dan.

As-

(1) Psalm. 25. enarrat. 2.

Ascotan zue, cristinau ez dalaco, burla egui-
ten deutzazuna, bihurtuten da Jaungoicuagana.
Ta benturazi zue baino, obeto serviduten dau,
adoreetan dau, ta ameeetan dau Jaungoicua.
Gueuc jaquin ez arren, nortzue, eta ceimbat
dirian, bagoz cristinau ez dirianeen artian cris-
tinaubac. Ez daquigu Jaungoicuaren aurrian
cer jatzoten dan, ez cer jazoco dan. Ez da-
quigu, ceintzue salbauc dirian, edo conde-
nauc dirian. Orregaiti munduco guizon, ta
emacuna guztia eugui biar ditugu gueure la-
guntzat, ta proximozat. Au da San Agusti-
nen verbestia.


Emeti ateraten da contuba, cristinaubac,
gorputza, ta arimia dauqueen guizon, ta ema-
cune guztia, nai diriala eregiac, nai judegu-
bac, nai moruac, nai gentilac, nai Jaungoi-
co bagacuac, nai beste edocein castatacuac,
gueure lagunac, ta proximuac dira. Ta gueure
buruba leguez amau biar ditugunac, dira guz-
tia, salbauc bagara. Alan 1. Amau biar ditugu,
Ceruban Jaungoicuagaz dichoso dagozan Ain-
gueru, Santu, ta Santa guztia. Alegrau biar
dogu; eureen dlcha onagaz, ta gloria ederra-
gaz. Ta erregutu biar deutsegu, izan diteza-
la gueure lagun onac Ceruban Jaungoico andi-
jaren aurrian. 2. Amau biar ditugu, Purgato-
rijuan erreetan dagozan arima pielac, dirialaco
Jaungoicuaren adisquidiac; gracia, ta carida-
dia inos galduco ez daveenac; ta Ceruban San-
tubaquia beti vitzico dirianac. Erruqitu biar
dogu, Purgatorijoco arimaac dauqueezan pena-

aquin. Ta socorridu biar ditugu oracinoiagaz
 barubagaz, ta beste eguitade onaquin, pena
 areetati librauta, gueure bitarteco Ceruban
 izanditezan. Purgatorijoco arima pielac gaiti
 Eleisa Ama santiac eracusten deutcuna, da.
 1. Jaungoicuaren gracijaan, ta adisquidetasu-
 nian ill dirian arimaac, baina pecatu mortal
 ondo compesaubeen, edo pecatu chicarreen zor
 guztia Jaungoicuaren zuentasunari munduban
 pagau bagarie, ill zirianac, illda guero, pa-
 gau biar daveela zor guztia padecidubagaz. 2.
 Arima errucarri areec purgatorijuan dagozan
 artian, erriaz, ta padecidubagaz baino, beste-
 lan eurentzaco ezin leguileela ezer. 3. Eleisa
 Ama Santiaren, ta cristinaubeen eguitade onac,
 Limosnaac, Oracinoiac, Mezaac, indulgenci-
 jaac, ta caridadiac, purgatorijoco arimeen ize-
 nian eguin ezquero, balijo deutseela, eureen
 zorrac pagueetaco, ta penaac arinduteco, edo
 guztia, edo zati bat. Ta ceimbat gueijago
 eguiten dan eureen izenian, aimbat lasterrago
 urtengo daveela purgatorijoti. 4. Arima dicho-
 so areec seguru dagozala betico. Ezin leguilee-
 la ija pecaturic. Ta zorra pagau daguijeen is-
 tantian, sartuco diriala Ceruco Erreinuban.

Au da, cristinaubac, pedi ac eracusten deutcu-
 na purgatorijoco arima pielac gaiti. Padecieta-
 ta erreetan dagozan, proximuac dira. Jaungoi-
 cuac, ta Ainguerubac maite ditubeenac, dira
 Ceruco pamelija Santuba gueituco davtenac, di-
 ra. Premina andijan dagozanac, dira. Menturaz
 gueure gurasuac, ta senide urrecuac dira. Es-

quer onecuaç dira. Bada gueuc gueure eguita-
de onaquin orain pena areetati libreetan badi-
tugu, dda bagario izango dira ceruban Jaun-
goico andijaren aurrian bitarteco segurubac. So-
corridu daiguzan bada aleguin guztijagaz pur-
gatorijoco arima errucarriac. Baita onezaz gai-
nera amau biar ditugu munduco proximo guz-
tiac, gueroco dotrinan esango dan modubagaz,
ta ordeniagaz, salbauc bagara.

Erregutu daguijogun bada, neure cristi-
naubac, gueure Jaungoico onari; Eracutsi dai-
gula, bere anditasuna, gueure burubac, ta pro-
ximuac ameean. Aitiaren, Semiaren, ta Espi-
ritu Santubaren Izenian. Amen.



VIII. ICASQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan: 1. *Arerijo ez dirian,*
proximuac ameeia cerdan? 2. *Ce ordenagaz*
amau biar dirian?

Icasi ezquero cristinaubac, celan amau biar
daven bere buruba, ta ceintzuc dirian bere
proximuac; oni darraico, neure entzula onac,
icastia, cerdan guere proximuac ameeia, ta ce
ordenagaz amau biar ditugun. Esango deusut
bada dotrina onetan: Leleengo; *celan amau bi-*
ar ditugun guere proximuac. Bigarrenian, *ce*
ordenagaz amau biar ditugun. Ez da dotrina
one-

onetan ezer esaten, arerijuai zor deutsagun amodijua gaiti. Au dan leguez, sarritan jatzoten dana, ta cristinau ascoc nequez icasi oidaveena, dinot: *arerijuac ameeitia*. Gueroco dotrinaco isten dot, oni jagocana eracustia. Egon zaitez bada atencinoe onagaz.

I. Jaungoicuaaren aguinduba da, neure entzula onac, proximuua gueure buruba leguez ameeitia. Inor bere ez dago libre, cer eguin santu onetati. Inoc bere ucatu ezin legui, legue santu au. Proximuac ameeitaco neurrija bere, Jesu-Cristo gueure Jaunac berac iminija da. Ezin quendu guinaijo izpiric, caridadian paltau bagaric. ¿Ce neurri da bada au? Gueure burubari deutsagun ondo guria, proximuari izatia. Gueuretzat gura guenduquiana, proximuari gura izatia. Gueure burubac leguez, proximuua ameeitia. Ara emen neurri arguija, zabalaa, duda guztia quenduten ditubana, ta edoceinec bertati icasi leguijana. ¿Nai dozu ceuretzat osasuna? Bada nai izan biar deutsazu proximuari. ¿Nai dozu ceuretzat baquia? Bada nai izan biar deutsazu proximuari. ¿Nai dozu ceuretzat cleitu ona, ondra ona, bestiac ceu gaiti ondo esan daguijeen, ta estimau zaguijeezan lecu guztietan? Bada nai izan biar deutsazu proximuari cleitu ona, estimacinoe ona, gentiac bera gaiti ondo esan daguijan, ta pensau daguijan. ¿Nai dozu ceure laboriac ondo, ta ugari eldutia, ceure ganadubeetan, tratubeetan, ta artu emoneetan ondo urtetia, ta inor cansaubagaric, cegaz vitzi munduban euquitia?

Ba-